



3HI-037/07-P03

TEODORO OLEA ITURREGI EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN  
ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Vitoria-Gasteizen maiatzaren 10ean Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak egindako 3/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariaren aurkako botoarekin, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

“1.- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Mendaroko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak planteatzen duen lurralde-eredua baloratu da, honako hau kontuan izanik:

TXOSTENEAN LOTESLEAK DIREN ALDERDIAK.

1. INGURUNE FISIKOA.

1.a) Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetarako eta Lurraldearen Zatiko Planerako egokitzapena.

- Espazio naturalak eta eremu interesdunak.

Plan Orokorrak Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planak plan horretako 01 Planoan ezartzen diren honako esparruei ematen dien babes-erregimena eta mugaketa jaso beharko du; “Ingurune fisikoaren antolamendua. Babestu eta hobetu beharreko garrantzia bereziko esparruak”:

- “0636A A-8 autobidearen ebaketa” interes geologikoko eta geomorfologikoko eremua.
- Historiaurreko hobi arkeologikoak: Aizkoltxo, Aitzbeltz II, Lizarroa I, Kurpittegi eta Agarre haitzuloak.

- Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa.

- Plan Orokorrean proposatzen den lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioaren aldeko txostena egin da, baina beharrezkotzat jo da alderdi zehatz hauek ebatzea:

- Dokumentazio grafikoan “Basoa” kategoria “Lur gaineko uren babesa” kategoriaren barruan sartzen dela ematen du, eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen arabera kategoria independentea behar du izan.
- Araudian erregulatzen den “mendiko larreak” kategoria ez da dokumentazio grafikoan definitutako lurzoru urbanizaezineko zona bakar bati ere esleitu; hala bada, ezabatu egin beharko da.

- Lurzoru urbanizaezineko erabileren erregulazioa.



Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Lehen Xedapen Iragankorra aplikatuta, Planak Lege horren 31. artikulura egokitu beharko du lurzoru urbanizaezineko erabileren eta eraikuntzen erregimenaren erregulazioa.

1.b) Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra).

• Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planera egokitu beharko da:

01 eremua. Garagartza 1.

Eremu horretan beste bizitegi-eraikuntza bat gauzatzeko proposamenaren aurkako txostena egin da; izan ere, urpean geratzeko arriskuan dagoen eremu batean kokatzeak nabarmen baldintzatuko luke eraikuntza programatu berri horretan aurreikusten diren erabileren garapena. Horrez gain, Lurraldearen Arloko Planak ibilguarekiko ezartzen duen gutxieneko atzerapena errespetatzeak bideraezin egiten du esparruan planteatzen den jarduna.

11. eremua. Sortzez Garbia.

Eraikuntza berriak Kilimon ibaiaren ibilguarekiko gutxieneko atzerapena –Uren Legeak ezartzen duena– errespetatzera baldintzatuko da planteatzen den jardunaren aldeko balorazioa.

• Plangintzan aintzat hartzen diren esparruetako batzuk urpean geratzeko arriskuan daudenez gero, kontuan izan beharko da esparru horietan egin beharreko edozein jardunen kasuan Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritako zehaztapenak bete beharko direla (8. Kapitulua, 6.8.8.5 idatz-zatia), baita Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren E.1.4 idatz-zatian ezarritakoak ere. Edonola ere, alderdi horren balorazioa Uren Zuzendaritzak jaulki beharreko txostenaren mende izango da.

• Lurraldearen Arloko Planean “ondo kontserbatutako landaredia duten ertz” gisa kategorizatutako ur-bazterretan, Plan Orokorra ezarri beharko du lur naturala aldatzea eragin dezakeen edozein esku-hartze (Lurraldearen Arloko Planak ezartzen duenaren arabera) ur-bazterreko landarediaren kanpoaldeko ertzetik 10,00 metro atzeratu beharko dela.

• Lurraldearen Arloko Planean “lehentasuneko interes naturalistikoko zonetako ertz” gisa kategorizaturako ur-bazterretan (Kilimon ibaia, Haranerreka esparruan), eta, lurralde-plangintza horren D.2 idatz-zatian ezarritakoaren arabera, eraginpean dauden ibilguak zeharkatzen dituzten esparru babestuek berriazko antolamendu-dokumenturik ez duten bitartean, ur-bazter horietan ibilguarekiko 50,00 metroko gutxieneko atzerapena errespetatu beharko da. Zerrenda horretako ertzak lur gaineko urak babesteko lurzoru urbanizaezin gisa kalifikatuko dira.

## 2. AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK.

a) Plan Orokorra Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planean definitzen diren azpiegituren arloko esku-hartze estrategiko hauek jaso beharko ditu:

- N-634 errepidearekiko paralelo bidegorri bat trazatzea.
- Edateko uraren araztegi bat aurreikustea.

b) 1. eremuan, Garagartza-1, aurreikusten den bizitegi-garapenari buruzko proposamenari dagokionez, eta, zehazki, eremuarekin muga egiten duen trenbide-trazadurari dagokionez, Garraio eta Herrilan Sailak jaulki beharreko txostenaren mende izango da jardun horren balorazioa.



### 3. EKIPAMENDUAK.

Eskualdeko ospitalea zabaltzea eta horretarako sarbideak hobetzea aintzat hartzen duen planaren proposamenaren aldeko balorazioa egin da, Lurraldearen Zatiko Planean ezartzen diren zehaztapenen arabera baita.

### 4. BIZITEGI KOKALEKUAK ETA EKONOMIA JARDUEREN KOKALEKUAK.

#### a) Bizitegi-lurzoruaren antolamendua.

- Bizitegi-erabilerako lurzoruetarako ezarritako kuantifikazioaren aldeko txostena egin da (232 etxebizitza), kopuru hori onargarria baita Lurraldearen Zatiko Planean ezartzen diren zehaztapenen aplikazioaren ondoriozko balio-urkilaren arabera (254 - 379).

- Kontuan izanik 33-Irabanea bizitegi-sektorea bat ez datorrela Lurraldearen Zatiko Planean definitutako bizitegi-garapeneko eremuen mugapenarekin, eta sektore horren eta ondoko industria-esparruaren (34. eremua, Erramone) artean dagoen jarraitasuna aintzat hartuta, 33-Irabanea sektorearen bizitegi-kalifikazioaren aurkako txostena egin da. Ez da hipotekatu nahi udalerriak industria-lurzoruko premiei erantzuteko duen erreserba urrietako bat –plangintzaren hurrengo berraztertzean sor daitezkeen premiei erantzuteko adibidez-. Izan ere, lurzoru erabilgarria egoki administratu behar da, lurzoria ondasun urria da eta haren erabilera eta garapena optimizatu behar da.

#### b) Ekonomia-jardueretarako lurzoruaren antolamendua.

- Ekonomia-jardueretarako lurzorurako proposatutako kuantifikazioaren eta lurralde-ereduaren aldeko txostena egin da; izatez, bat datoz indarrean dauden lurralde-antolamenduko dokumentuetan ezarritako zehaztapenekin.

### 5.- URAK.

Uren Zuzendaritzak 2007ko maiatzaren 7an jaulkitako txostenean ezartzen diren baldintzak bete beharko dira.

### 6.- GARRAIO-AZPIEGITURA.

Garraio Azpiegiturearen Zuzendaritzak 2007ko maiatzaren 7an jaulkitako txostenean ezartzen diren zehaztapenak bete beharko dira.

### 7. NEKAZARITZA.

- Abere-ustiapen instalatu berrietarako araudiaren aplikazioa.

Jarduera-lizentzia eskuratu behar duten abere-ustiapen instalatu berriek nahitaez bete beharko dute uztailearen 6ko 141/2004 Dekretuan ezarritakoa –abeltzaintza-ustiapenen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen ditu Dekretu horrek-. Ingurumena



babesteko Legean aurreikusten den jarduera-lizentzia lortzeaz salbuetsitako jarduerak ezartzen dituen martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuari jarraituz, bestalde, jarduera-lizentziarik behar ez duten ustiapenek Dekretu horretako IV. Eranskinean ezartzen dena bete beharko dute.

Araudi hori Mendaroko Plan Orokorraren Hirigintza Araudi Orokorraren B dokumentuan jaso beharko da, eta zehazki nekazaritza-ustiapenei eta bizitegi-erabilera osagarriari buruzko 90. artikulua 6. puntuan (nekazaritza-ustiapenerako eraikuntzak).

#### TXOSTENEAN LOTESLEAK EZ DIREN ALDERDIAK.

- Proposatutako ahalmen urriaren eta 33. sektorea deskalifikatzearen ondorioz Plan Orokorrean aurreikusten den bizitegi-hazkundera txikia dela kontuan izanik, ezarritako bizitegi ahalmena gehitzeko beharra aintzat hartu beharko litzateke, bizitegi-ahalmena plangintza orokorraren indarraldian sortuko diren premietara egoki dadin.

II.- Espedientea behin betiko onartzeko eskumena duen organoari igorriko zaizkio ziurtagiri honi gaineratzen zaizkion Uren Zuzendaritzaren txostena (I. Eranskina), Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzaren txostena (II. Eranskina), Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzaren txostena (III. Eranskina), eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena (IV. Eranskina).”

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko maiatzaren 10ean.

IDAZKARIA

Izta.: Teodoro Olea Iturreri.

